

Gai ordena:

- 1- Eskuratu berri dugun Beko Kale ondoko terrenoaren plano topografikoa**
- 2- Biziklontantzako gordailua**
- 3- Agenda 21**
- 4- Itsasondoko webguneko ingurumen atala**
- 5- Hondakinen kudeaketa**
- 6- Datorren bilerarako gaiak**

### **1- Eskuratu berri dugun Beko Kale ondoko terrenoaren plano topografikoa**

A.G.-k esan digu plano a egin behar duen enpresa dagoeneko lanean dabilela. Bestalde terrenoko sarreran zeuden oztopoak kendu dira.

### **2- Biziklontantzako gordailua**

A.R.-k bere proposamena azaldu digu. Oinarri bezala Tolosan erabili duten arautegia erabiltzea proposatzen du. Aurrera egin baino lehen herritarren aldetik interesa dagoen egiaztatuko da. Horretarako herritarrei izena ematea eskatuko zaie (aldizkarian edo buzoneo baten bidez). Gutxienez 10 pertsona apuntatu beharko dira.

### **3- Agenda 21**

I.A.-k Agenda 21-ren kudeaketarako programa informatiko bat dagoela jakinarazi digu eta udaletxean informatika lanak egiten ari den pertsona baliatu nahi da programa horren instalazioa eta erabilpena bultzatzeko.

Itsasondoko Iraunkortasun planaren egoerataz jardun gara, errebaso txiki bat eginez. Ikusi da bertan zehaztutako ekimen asko aurrera eraman direla baina beste batzuk bidean ahazteko arriskua badago. Planaren jarraipena egitea adostu dugu eta lehen aipatutako programak langunduko digu.

### **4- Itsasondoko webguneko ingurumen atala**

I.A.-k ere webguneko ingurumen atala osatu gabe dagoela adierazi du eta Aranzadiko teknikariarekin atal hori osatzeko lana abiaraziko dutela. Mendi ibilbideak ere falat

### **5- Hondakinen kudeaketa**

D.E.-k hondakin organikoen kudeaketa integrala herrian bertan egiteko aukera ba omen dagoela kontrastatu du Sasietako teknikariekin. Hori dela eta proposamen zehatz bat lantzeko talde txo bat osatu nahi du. Aukera ezberdinen inguruan hitz egin dugu eta batzordeko kide batzuk lan horretan laguntzeko eskaini duten haien burua.

### **6- Datorren bilerarako gaiak**

Martxoko bileran Beko Kaleko plan orokorraz gain energia aurrezteko plana ere eztabaidatuko ditugu, ikasle batek prestatutako txostentxo aurrezteko digute (apirelarako aurreikusten genuena)